

Inauteriek alaitu dute herria

Mozorro koloretsu eta irudimentsuak soinean, ospakizuna eta tradizioa uztartu ditu Lasarte-Oriak otsaileko azken asteburuan / 8-9

TXINTXARRI

Aldarrirako ekimenak, prest

Idoia Telleria Maritxalar herritarraren 'Ni naiz, Idoia' erakusketak ireki du Emakumeen Nazioarteko Eguneko egitaraua / 6-7

Argi Iturralde eta Iñaki Balerdi omendu ditu EH Bilduk. Hemeretzi urte bete dira auto istripuz hil zirenetik / 2

Trukelandia egingo dute aurten ere, familien artean euskararen transmisioa indartzeko asmoz / 3

Mendebaldeko Sahararekiko elkartasun asteburuan parte hartu dute lasarteoriarrek / 4

'Latinoamerikaren zain urratuak' aurkeztu die herritarrei Iñaki Alegria itzultzaileak / 5

Xake zaletuak bildu eta jokatzeko elkarte berria sortu dute Lasarte-Orian, Taula Xake Kluba / 10

Ostadar Atletismoa saileko kideek, lan ona Espainiako zein Euskadiko txapelketetan / 11

2 BETAURREKO GRADUATU SOILIK, 129€

ESKAINZA BARRUAN

ukipen-lenteak doan hilabete baterako
+
premium azterketa bisuala
+
gogobetetze-bermea



2022KO
KANPAINA

R.P.S. 91/20

Kontsultatu optikan kanpainaren ezaugarriak.

Kale Nagusia, 15
Tel.: 943 37 74 55
LASARTE-ORIA

MULTIÓPTICAS
50 urte zuen ikusmena zaintzen

www.multiópticas.com   

Iturralde eta Balerdi oroitu dituzte aurten ere

Askatasuna parkeko oroitarrian egin diete herritarrek omenaldi xumea. Salbuespenezko dispertsioaren neurriak indarrean jarraitzen dutela salatzen ere baliatu dute hitzordua. EH Bilduren adierazpen bateratua ere irakurri dute

Txintxarri

Hemeretzi urte bete dira otsailaren 28an, Argi Iturralde eta Iñaki Balerdi lasarteoriatarrek auto istripuan hil zirela. Almeriako espetxean preso zegoen Juankar Balerdi senidea bisitatzera zihoazela gertatu zen ezbeharra. Joxe Balerdi (presoaren aita) ere larriki zauritua gertatu zen. Lasarteoriatarrek gogora ekarri eta dispertsio politika salatzen elkarrekin dira Askatasuna parkean eguerdian.

EH Bilduko ordezkari Jon Martinek hartu du hitza eta alderdiaren adierazpen bateratua irakurri. Gogorarazi du, lasarteoriatarrekin batera, preso politikoak bisitatzera zihoazen beste hamalau senide eta lagun ere hil zirela errepidean. Azpimarratu du salbuespenezko dispertsio neurriak indarrean jarraitzen duela oraindik ere: "Senide eta lagunak kilometro asko egin behar dituzte eta denbora luzea igaro behar dute errepidean



Argi Iturralde eta Iñaki Balerdi oroitu dituzte Askatasuna parkean. TXINTXARRI

preso politikoak bisitatu ahal izateko". Egoera horrek dakartzan ondorioak ere zerrendatu ditu: gastu ekonomikoak, nekea, istripuak eta sufrimendua. Salbuespenezko dispertsio politikak preso politikoaren giza eskubideak urratzeaz gain, senideen eskubideak ere urratzen dituela azaldu du Martinek: "Senideak kondenatuak izan gabe, zigortuak dira".

Errepidean hil diren hamasei biktimen aldeko aitortza eskatu du, azalduz, memoria ariketa egin eta sufrimendu guztien aitortza urratsak eman behar direla berriz ere halakorik gerta ez dadin. Bide batez, biktima horien memoriaren aitortza eskubidea urratzen ari dela gaitzetsi du. Hala, dispertsioarekin amaitzeko deia egin du.



Otsaileko azken ostiralean parte hartu dute herritarrek. TXINTXARRI

Dispertsioa ardatz, azken ostiralean

Ohiko bidetik irten ziren oraindik. Ez zuten ibilbidea aldatu, baina ekintzaren egitura moldatu zuten. Ordu eta leku berean elkarrekin ziren, baina Sare eta Ebaxeraten idatzi bateratua plazan irakurri beharrean, Elizatze bertan egin zuten Ixiar Arteagak.

Iñigo Gutierrez, Unai Fano eta Jon Crespo presoaren kasuan, zigor luzeen hiru laurdenak bete, eta birgizarteratzeko pausoak ematen ari zirela, gradu erregresioa ezarri, eta kartzelara bueltatu behar izan dute. Erabaki horiek salatu ondoren, Jabi Gallaga Euskal Herriko kartzela batera lekualdatuko dutela azaldu zuten Arteagak. Oraindik ez dakite zein espetxetara ekarriko duten.

Bestalde, Okendo Zinema Taldeak *Tipularen sehaska* kanta ekarriko duela ere jakinarazi die bertaratuakoei. Sareren enkarguz Lander Garrok zuzendutako dokumentalak, gaixo dauden presoaren egoerari buruz hitz egiteko aukera emango du.


Horiek esanda, ibilbideari ekin zioten. Okendora iritsi eta Argi Iturralde eta Iñaki Balerdiaren irudia proiektatuta zegoen Tiburtzio-Artizar tabernaren gaineko fatxadan. Martxoaren 6an, igandearrekin, urteroko omenaldia egingo diete Teresategin. Espetxera bidaiari batean izandako istripuan hil ziren, horregatik, dispertsioa da aukeraturako gaia. Herriko zenbait laguni galdetu zieten zer den beraiantzat eta erantzundakoaren lagin bat irakurri zuten. "Txikienek 'zergatik daukate osaba espetxean?' zergatik dute osaba horren urrun?" bezalakoak galdetzen dituzte. Distantziarekin batera, denbora ere esan nahi du sakabanaketak, bidaietako zama eta dispertsioak duen iraupena. Halakoez mintzatu ziren.

Jaizkibel plazako lanak

Udalak adierazi duenez, obra horien bidez "espazio publiko hobeak eta ekipamendu berriak" izango ditu Sasoeta auzoak. "2003ko Arau Subsidiarioetan aurreikusitako lanak bukatuko ditugu, alegia, auzo horretako etxabe guztiak eraistea".

Jaizubia Obras y Servicios enpresa arduratuko da Jaizkibel plazako 14b, 15b eta 19 zenbakidun etxabeak eraistez. Udalak ez du zehaztu obrak noiz hasiko diren, baina bai zenbat dirutan esleitu dituen lanak: 1.141.809 euro.

"Berrurbanizazio lan horren bidez, oinezkoentzako ibilbideak ireki eta puntu beltzak ezabatuko ditugu".




L-OKO UDALA

Horrez gain, moldaketa gehiago egingo ditu enpresak: forjatuak iragazgaitu, zoladura jarri, hiri altzariak eta lorezaintza jarri eta zerbitzu sareen obrak egin. 19.

etxabea bota ondoren, bertan geratuko den espazioan haurrentzako parke bat egingo dutela ere jakinarazi du Lasarte-Oriako Udalak.

Lasarte-Orian erregistratutako kasuak, hilabetez hilabete txintxarri



Iturria: Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila - <https://www.euskadi.eus/koronabirusaren-eboluzioaren-inguruko-datuen-buletina/web/b1-a2/korona/eu/>
*Martxoaren 2ra arteko datuak

TXINTXARRI

Beheranzko joerari eusten dio

Osakidetza eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren otsailaren 24tik martxoaren 2ra arteko datuak izan dira TXINTXARRI-k zenbaki hau inprimatzera bidali aurretik kontsultatu ahal izan dituen azkenak. Horien arabera, 29 kutsatze atzeman dituzte Lasarte-Orian, eta azken hamalau egunetan, 60. Gaur-gaurkoz, intzidentzia tasa metatua 315,04koa da.



Gurasolandiako HH4ko haurrek 'Epo i tai tai e' dantzatu zuten, Porrotxekin batera. TXINTXARRI

Trukelandiara bidaiatzeko trena martxan dago

Familien artean euskararen transmisioa indartzea da Gurasolandia egitasmoaren helburua. Aurten bertan parte hartzen ari diren sendiek ezagutzak partekatze saio bat egingo dute hilabetearen behin, Trukelandia izenekoa. Kultur etxean ezagutu dituzte nondik norakoak

Txintxarri

Trukelandiara bidaiatzeko trenak geldialdia egin zuen hilaren 1ean Manuel Lekuona Kultur Etxean. Gidariak, Porrotxek, abentura hori zertan den azaldu zien aretore bertaratu ziren 60 familia ingururi, eta bagoira igotzera gonbidatu zituen.

Egitasmoaren izenak dioen moduan, esperientziak trukatzeko da helburua, hilabetearen behin, Gurasolandiaren parte hartzen ari diren familien artean. Horieta bakoitzak ezagutza bat partekatuko du besteekin, hala nola, errezetak, abestiak, jolasak, ipuinak, eta abar. Iaz egin zuten ekimen hori aurrenekoz, eta bertan parte

hartu zuten Sonia eta Leire igo ziren oholtza gainera, bizitakoa gogoratu eta aurtengo partaideei ezagutarazteko. Saiotetan lantzeko ideia batzuk eman zituzten: komuneko papereko tutuekin lore bat egitea, gero aiton-amonei oparitzeko; puzzle bateko piezekin bakoitzak istorio berri bat osatzea; eta malabarak egiteko bolak egitea. Haurrek ere parte hartu zuten aurkezpen ekitaldian: *Ran rober ran* edo *Epo i tai tai e* dantzatu zituzten, besteak beste.

Euskararen transmisioa

Urte batzuk daramatza martxan Gurasoleku egitasmoak. Xede nagusia da herriko haurrak elebidun oso bihurtzea, familietan

euskararen transmisioa bultzatzearen bidez. Lasarte-Oriako Udaleko Euskara Zerbitzuak, Ttakun Kultur Elkartek, eta herriko ikastetxeek zein euskaltegiek osatzen dute lan mahaia, eta proiektua koordinatzen dute. Adarretako bat da Gurasolandia, eta Trukelandia, bertan parte hartzen ari diren arteko harremanak sendotzeko bide bat.

Izen ematea martxo erdialdera arte zabaldu dute antolatzaileek. Aurkezpen ekitaldian eskuorri bat jaso, eta bete egin zuten zenbait gurasok, baina hori ez da apuntatzeko bide bakarra: WhatsApp mezu bat bidal daiteke 695 78 53 89 telefono zenbakira.



Yon Rodriguez ezkerrean, Rosa ama eta Juan aita ondoan dituela. TXINTXARRI

Bezere eta herritarrekin, festa giroan ospatuko dute 40. urteurrena

40 urte gogo betez. Lelo hori aukeratu dute Avenida tabernako kideek 40. urteurrena iragarri eta ospatzeko. Ezin zuten hobirik topatu; hala tratatzen baitituzte bezeroak egunero-egunero, gogo betez eta irribarrez.

1982. urtean zabaldu zituen, lehen aldiz, ateak aipatu tabernak. Rosa Ventosok eta Juan Rodriguezek kudeatzen zuten orduan negozioa, eta urte mordo bertan lanean aritu ostean, haien seme Yon Mikel Rodriguezek hartu zuen ardura 2012az geroztik. Izaten du, halere, gurasoen laguntza, tarteka; haiek ditu maisu oraindik ere.

Izango ditu Rodriguez-Ventoso sendiak gogoan urte guzti horietan bezere eta herritarrekin bizitakoak, eta ekarriko dituzte gogora, ziur, larunbat honetan. Urtemuga ospatzeko egitarau ederra prestatu dute; eguerditik aurrera izango da festa. Photocallean argazkiak ateratzeko aukera izango dute bertaraten direnek, eta bermuta edatekoa ere bai. Horrekin batera, urdaiazpiko ebakitzaila egongo dela iragarri dute, hortaz, mokadu ederrak dastatzeko parada izango dute bezeroek. Hori gutxi balitz, musika zuzenean jarriko duen DJ bat ere izango da, badaezpada, dantzarako gogoz dagoenak gorputza astintzeko aitzakiarik izan dezan. Paella ere prestatuko dutela jakinarazi dute, hortaz, sabela bete edari eta janari behintzat irtengo dira tabernatik herritarrak. Giro ederra izango da ziur, hori egunerokoa baita, baina, are gehiago izango da larunbatean.

Bezere eta herritarrak gonbidatu dituzte tabernara bertaratu eta festaz gozatzera.

Irati Martijak pozarren jaso du saria

Gidabaimenaren atal teorikoa euskaraz atera izanagatik, 290,40 euro jaso ditu Irati Martija herritarrak. Lasarte-Oriako Euskara batzordeburu Jon Antxordoki eta Mugica autoeskolako zuzendari Ana Mugica alboan izan ditu saria jasotzeko ekitaldian.

Aurtengo kanpaina laster hasiko da, maiatzean: udalak gutun bana bidaliko die 18 urte bete dituzten herritarrei.



Ezker-eskuin: Ana Mugica, Irati Martija eta Jon Antxordoki. TXINTXARRI

Avenida 1982-2022
 taberna * jatetxea **MARTXOAK 5**
 12:00etatik aurrera

Photo call
Bermuta
Urdaiazpiko ebakitzaila

DJ Paella

40
 urte gogo betez



Sahararrei elkartasuna adierazteko elkarretaratzea egin zuten otsailaren 27an Okendo plazan. TXINTXARRI

Mendebaldeko Sahararekiko elkartasuna

Mendebaldeko Sahara Errepublikak Demokratikoa aldarrikatu zutenetik 46 urte bete dira otsailaren 27an. Gertakari historiko horren harira, sahararren egoeraren berri emateko zenbait jarduera antolatu ditu Sahararekin Elkartasuna Lasarte-Oria taldeak

Txintxarri

Mendebaldeko Sahararentzat irtenbide bat eskatu eta sahararrei elkartasuna adierazteko ueña izaten da otsaila amaiera. Hamarkadetan luzatutako gatazkak ahazturan erori ohi dira, horregatik, garrantzitsua da haiei buruz hitz egitea. Gaia ondo ezagutzen du Ali Salem Iselmu idazle eta kazetariak eta haren berri eman zuen otsailaren 24 iluntzean Mercero gunean. Atzerapen pixka batekin hasi ziren, batetik, Iselmuk bizileku duen Arabako Alegria-Dulantzitik etorri behar zuelako, eta bestetik, bere aurkezpena proiektatzeko arazoren bat izan zutelako.

Dena prest zuela, kontaketa historikoari ekin aurretik, taldeko kide Fernando Vaquerizok hartu zuen hitza. Halako saiok gertakariak azaltzeko izan beharrean zenbait errealitate gogoratzeke egiten direla adierazi zuen. Oroitarazi nahi izan zituen gauzen artean, hiru. Lehena,

Espainiak Sahararen potentzia administratzailea izaten jarraitzen duela, eta, hortaz, behingoz hitzartutako erreferenduma aurrera eramane edo NBERi hura antolatzeke ardura eman beharko liokeela. Bigarrena, Brahim Gali Mendebaldeko Saharar errepublikako presidentea dela, “ez terrorista bat”, eta espainiar herritartasuna ere baduenetz, zentzuzkoa izan zela koronabirusak kutsatuta zegoela Espainian artatua izatea. Azkenik, sahararrak hiru zonaldeetan bizi direla, baldintza oso gogorretan. “Hiru hilabetez egon gara pandemiak baldintzatuta, imajinatu zer den 46 urtez haimetan bizitzea”.

Gaiaren kokapena eginda, Iselmuk “urteurren garrantzitsu” honen aurrekari historikoen bilakaera gainbegiratu zuen, XIX. mendean Espainiak okupatu zuenetik abiatuta. 1976an lur haiek utzi zituen, Marokok egindako Martxa Berdearekin bat eginez. Lurraldea hirutan zatitzen duten harresiak eraiki ditu urteotan

Marokok, besteak beste, sahararrak kostaldetik aldentzeko eta ur horien kontrola izateko. Hala, Europako Batasunarekin sinatutako akordioaren barruan, 112 ontzi europarrek arrantza egiten dute ur haietan, gehienak, 92, Espainiakoak dira. Zonalde bakoitzeko bizimoduaren baldintza gogorak ere deskribatu zituen, eta hori gutxi balitz, hizlariak salatu bezala, Marokok urratu egiten ditu sahararren giza eskubideak. Gertakari horiek isilarazteko, galarazi egiten du bertan gertatzen denaren berri ematea, kazetariak eta politikariak kaleratu egiten baititu aireportuan bertan. Azken ia mende erdian gertatutakoaren ideia orokorra marraztuta, egungo gatazkaren nondik norakoak argitu zituen.

Ostiral arratsaldean, berriz, autokarabana egin zuten herriko kaleetan barrena. Igandean, hogeita hamar bat lagun batu ziren eguerdian *Maroko Sahararik At! Independentzia* zioen pankarta atzean elkarretaratzea egiteko.



NEURE KABUZ

GORKA LASA

Lotsaizuna

Eguzkia aspaldi ezkutatu da, eguna ilundu, egunero bezala. Gauerdia pasa da eta hiriak lo jarraitzen du, lasai antzean, baina tentsio hari bat airean, ilunpean. Ordu txikitari sartuak, gaua argitzen hasi da, baina ez egunero bezala, errusiarrek jaurtitako misilen argien argiak baizik. Gupidagabeko armadun gizonak sartu dira hirian, anker, zital, bortitz. Burdin-hotsa entzuten da; katedun tankeak arrastaka datoz; tiroen tarratada, zakurren zaunkak, oihiak... hiria bat-batean esnatu da; danbatekoak, sirenak, kea, hautsa, kaosa, anabasa... eta oihi gehiago.

Gerra piztu da. Nork esango XXI. mendean, ustez aurreratua den gizarte batean horrelako gerrarik piztuko zenik; orain badakigu, ondo jakin ere, zergatik xahutzen den horrenbeste milioi euro eta dolar armagintzan. Inozoak gu, mundua gerra nuklear baten ondorioz bat-batean suntsitu eta denok desargertuko ginela uste genuenok; duela bi urte sortu zen bezalako pandemia kutsagarri batek eraso eginda mundua bukatuko zela pentsatu genuenok. Ez. Gizakia elkar hiltzera kondenatuta dagoela esan genezake; ankerkeria eta zitalkeria gailendu direla; zein errespetu gutxi diguten guk demokratikoki hautatzen ditugun horiek. Zer da Europa? Herrialde multzo ahula dela erakutsi du, erabakiak hartzeko geldoa, batasunik gabea. Aldiz, a ze nolako botere eta harrokeria erakutsi duten Amerikako Estatu Batuek eta, nola ez, Errusiak.

Agintariak mahai erraldoi baten inguruan eztabaidatzen ari diren bitartean, herritarrak noraezean galdurik; milaka arima izutu, ahal dutena hartu, eta ihesi; nora iritsiko diren, noiz itzuliko diren ez dakitela. Beldurra eta amorrua. Horregatik, maite dituztelako, jarri dira kontaktuan euskal herritar ugari Ukrainan dituzten lagunekin: Txernobyl istripuaren ondorioz sendatzera eta indartzera etorritako haurrekin. Baina, ai, areagotu egin zaie pena: haur zirelarik etortzen hasitako haiek 20-25 urte inguruko gazteak dira gaur, eta beren herriaren alde borroka egin nahi dute. Eta zoritxarrez, batzuek ez dute udaberria loratzen ikusiko.

Zein mundutan bizi gara? Bakoitza bere ziliborrari begira? Zertan aurreratu du finean gizakiak? Nolako etorkizuna ezagutuko dute gure seme-alabek?

Gaur pena, tristura eta amorrua sentitzen dut.



ISAAC FARRE

Ukrainarrak laguntzeko deia

Ukrainara bidaltzeko produktuen bilketa abiatu dute Lasarte-Oriako Buggy eta Mostatxo tabernek. Aipatu taberna horien kudeatzaileak ukrainarrak dira, eta eurak arduratuko dira bilketa solidarioa zuzentzeaz, baina Kanada-Euskadi Garapen Elkarte Soziokulturalarekin lankidetzan gauzatuko dela jakinarazi dute. Informazio osoa www.txintxarri.eus atarian irakur daiteke.

'Latinoamerikaren zain urratuak' aurkeztu du

Iñaki Alegriak Eduardo Galeanoren 'Latinoamerikaren zain urratuak' –'Las venas abiertas de América Latina'– liburua euskarara itzuli du eta Lasarte-Orian aurkeztu. Adi-adi entzun dituzte itzultzailearen hitzak kultur etxeko hitzaldi aretoan bildu direnek

Txintxarri

Lasarteoriatarren aurrean aurkeztu zuen Iñaki Alegriak *Latinoamerikaren zain urratuak*. Eduardo Galeano idazle eta kazetari uruguaiarraren *Las venas abiertas de América Latina* liburuaren euskarazko bertsioa da, Alegriak berak itzulia. Euskal Herriko Unibertsitateko irakasle eta ikertzailea izana da Alegria, eta Komite Internazionalistako kide ere bai. Jubilatuta dago gaur egun, eta egoera hori baliatu du Galeanoren lana itzultzeko. Mikel Zinkunegi izan zuen ondoan, aipatu komiteko kidea da bera ere; militantzia horretan ezagutu zuten elkar. Otsailaren

24an egin zuen aurkezpena, Manuel Lekuona Kultur Etxeko hitzaldi aretoan.

Zinkunegik hartu zuen hitza saioari hasiera emateko, eta Alegria aurkeztearekin batera, liburuari egin zion erreferentzia. Azaldu zuen Galeanoren lanak "ideologia eraikitzen" lagundu zuela Latinoamerikan: "Kubako iraultzaren ostean, demostratu zen posible zela iraultza egitea Latinoamerikan". Liburuak Latinoamerikaren historiaren eta kolonialismoaren gaineko azterketa bat egiten duela azaldu zuen, eta itzultzaileari hitza eman aurretik, Galeanok liburu hori idatzi izanaren arrazoiak azaltzen

dituen pasarte bat irakurri zien aretoan bildutakoiei. Horrela dio: *Zainak idatzi nuen besteen ideiak eta bizipen propioak hedatzeko asmoz, horiek apika apur bat lagundu dezaketelako, bere neurrian, betidanik atzetik ditugun galderak argitzen: Latinoamerika ote da irainera eta pobrezia kondenatutako munduko eskualde bat? Nork kondenatua? Jainkoaren errua, naturaren errua? Klima itogarriak, azpiko arrazek? Erljioak, ohiturek? Zorigaitzokoa ez al da izango historiaren ondorioa; gizakiek egina eta gizakiek ondorioz desegin dezaketena?*



Adi entzun zituzten aretoan bildutako entzuleek Alegriaren hitzak. TXINTXARRI

Alegriak hitz egin zuen gero; liburuaren edukiaren gaineko hainbat zertzelada eman zituen. "Orri gutxitan eta ikuspuntu kritiko batetik", herrialde baten historiaren zati bat kontatzen duela azpimarratu zuen; gaia akademikoa izanik, historia ekonomikoari buruzko liburu bat dela. Planteamendua, ordea, bestelakoa da. Hizkuntza akademikotik aterata, Latinoamerikako historia kontatzea da helburua. Historia kontatzeko modua "oso originala" dela nabarmendu zuen, eta atalen berri eman. Sarrera bat, bost

kapitulu nagusi eta zazpi urte geroago idatzitako epilogo bat ditu. Lehenengo, bigarren eta hirugarren kapituluak, gainera, urtez urte kontatuta egon beharrean, "produktuz produktu" azalduta daude. Epilogoaz ere mintzatu da. Irakurtzeko "errazena" izan daitekeela esan zuen Alegriak: "Hor hitz egiten da Argentina, Txile eta Uruguako estatu kolpeez. Bertan irakur daitezke hain ezagunak diren Galeanoren esaldi biribil asko". Liburuak irakurtzera animatzen direnei, hortik hasteko aukera eskaini zien.

Bezperatik ospatu dute Andaluzia Eguna

Otsailaren 27a baliatu dute Semblante Andaluz elkarteko kideek hilaren 28ko egun handiko ekitaldiak aurrera eramateko. Meza, bazkaria eta dantza egin dute, eta astelehenean, Andaluzia Egunean ohorezko ardoarekin egin dute topa

Txintxarri

Zumaburuko Arantzazuko Ama parrokiaren egindako meza rocieroarekin hasi zuten otsailaren 27a. Beste batzuetan baino jende gutxiago zegoen, baina eliza ia bete zen. Orain arte elkarteko lehendakari izan den Jose Mari Melladok agurtu zituen bertaratutakoak: "Jainkoari esker, beste urte batez Andaluziako Eguna ospatuko dugu modu politenean: meza baten bidez". Semblante Rocieroren kanta batekin hasi zen elizkizuna, eta iraun artean, otoiarekin batera tartekatuta zituzten beste batzuk. Ohi bezala, Salve rocieroa izan zen amaierakoa, eta ondoren,



Semblante Andaluz elkarteko kideak eta udal ordezkariak topa egiten. TXINTXARRI

Duende taldeko lau neskatok dantza egin zuten.

Eguerdian, Atsokabak auzoko egoitzan bazkaria egin zuten. Ohi baino jende gutxiago izan zuen gutxi goxoekin gosea berdintzeko aukera, pandemia tarteko, mugatu egin baitzuten kopurua. Agintariak ez zuten hutsik egin, eta Agustin Valdivia alkatea, Jon Antxordoki eta Estitxu Garmendia zinegotziak Melladoren mahaian eseri ziren. Jaten hasi aurretik karguan izan den denboragatik eskerrak eman zizkien kideei eta onena opa, ardura hartuko duen talde berriari. "Gora Andaluzia!" esanez topa egin zuten eta otorduari ekin zioten.

Bapo jan ondoren, bazkaria arintzeko bide aproposa izan daiteke dantza egitea. Katak taldeak flamenko emanaldia egin zuen, kanta eta dantza uztartuz. Hasieran eserita ikusi zuten ikuskizuna bertaratutakoek, baina giroa berotzen joan zen heinean, aulkiek utzitako tartean dantza egitera animatu zituen batzuk.

28a izan zen egun handia eta ohi bezala ospatu zuten, Ohorezko

ardoarekin topa egitera gonbidatu baitzituzten udal ordezkariak.

Ohorezko topa, hilaren 28an

Esan bezala, usadioari eutsiz ospatu zuten Semblante Andaluzeko kideek Andaluzia Eguna, otsailaren 28a. Elkarteko presidentea aldaketa egin zuten, eta ohorezko topa gero. Giro ederrean elkartu ziren; kanturako tarterik ere izan zuten.

Urtero bezala, elkarteko bazkide eta kideekin batera egon ziren udal ordezkariak. Topa egin aurretik, elkarteko presidentetza aldaketa egin zuten. Jose Mari Mellado izan da orain arte kargu horretan aritu dena, eta Juan Navarriori pasa dio lekukoa. Eskerrak eman dizkie Melladok karguan egon den denbora ondoan izan ditueni, eta zortetik onena opaz zuzendu zitzaion Navarriori.

Kargu aldaketaren ostean, Semblante Rociero koruak abestu zuen, eta emanalditxo amaituta egin zuten topa, denek elkarrekin. Luntxa ere prestatu zuten bertaratu zirenentzako; giro bikainean ospatu zuten Andaluzia Eguna.

"Nire barne galderen erantzunak daude hemen"

IDOIA TELLERIA MARITXALAR ARGAZKILARIA

'Ni naiz, Idoia' izeneko erakusketa ondu du argazkilaria lasarteoriatarak. Emakumeen Nazioarteko Egunaren harira udalak antolatutako egitarauaren barruko jarduera da

Iñigo Gonzalez Sarobe

Antonio Mercero gunean bertan jarri dugu hitzordua Idoia Telleria Maritxalar argazkilariarekin. Bere aurpegiatiko bat ezagutu dugu, eta esan behar dugu plazera izan dela. Beste hainbat Idoia jarri ditu hormetan ikusgai, hamabi iruditan, *Ni naiz, Idoia* erakusketan. Proiektu "oso intimo eta pertsonala" da, egilearen hitzetan; hala iradokitzen du argiztapenak. Bertaratzeko asmoa dutenentzat, bi ohar: erakusketa ikusteko azken eguna hilaren 18a da, eta eskuineko aldetik ekin behar zaio artistak proposatzen duen bideari.

Zer erakutsi nahi duzu 'Ni naiz, Idoia' lanaren bidez?

Nire barne galdera askoren erantzunak daude hemen, alor hauei buruzkoak: aldaketa pertsonal eta profesionalak, emakume izatea, ama izatea, nire sustraiak, nondik natorren eta nora noan... Idoia desberdin asko erakusteko ariketa egin dut: hamabi irudi sortu ditut, barruan mugitu zaidan guztiari erantzuteko nahitik abiatuta.

Argazkiak naturan egin ditut, espazio horrekin asko konektatzen dudalako. Lana bakar-bakarrik egin dut, inork ni ez epaitzeko asmoz, ezta nik neuk ere, hori egiten duen lehenengoa bainaz. Nire burua autoerretiratu nahi nuen, baina kamera askatu gabe. Orain arte, ni egon naiz beste aldean, pertsonak fotografiatzen. **Nolakoa izan da ikuspuntua aldatzeko ariketa hori?**

Desberdina eta zaila, ez delako batera erraza zure burua ikusten ikastea. Argazkilaritza terapeutikoaren metodologia landu eta beste pertsona batzuei helarazi ahal izateko, ezinbestekoa iruditu zitzaidan lanketa hori lehenengo niregan egitea.

Argazkilaritza terapeutikoa aipatu duzu. Zer da hori?

Pertsona batek, irudiaren bidez, tresna bat izatea bere burua



Lan pertsonal bat aurreneko aldiz erakutsi du lasarteoriatarak. TXINTXARRI

"IRUDIAK NATURATIK ATERA DITUT, ESPAZIO HORREKIN ASKO KONEKTATZEN DUDALAKO"

ezagutzeko, ongizate pertsonala lortzeko, barne emozioekin konektatzeko... Iruditzen zait, askotan, zailagoa dela sentitzen duguna hitzez adieraztea, irudien bitartez baino. Niretzat, adibidez, errazagoa da ariketa hori egitea lengoia bisuala erabilita. Lanketa hori pertsonekin egitea oso interesgarria da. Haurrek, esate baterako, gaitasun izugarria dute irudietatik abiatuta istorio berriak sortzeko.

Bartzelonan egin zenuen graduondokoa ezagutu al zenuen ideia hori? Amaierako proiektu gisa aurkeztu zenuen orain herrian erakusten ari zaren lana.

Argazkilaritza soziala egin nuen 20 urtez; 2015era arte estudioetan eta lan egin nuen. Orduan, uretebetez, argazkilaritza utzi nuen, gogo gutxiarekin sentitzen nintzelako, pertsonalki ere une zailak izan ziren, banandu egin nintzen... Beste zerbaitetan hasi nintzen lanean, baina, hala ere,

ez zitzaidan burutik joaten nik ongien egiten dudana pertsonak erretratatzeko dela. Hori banekien, baina nondik aritu nahi nuen, eta nola?

Hernaniko Iturolan eta KoopFabrikan formatzen hasi nintzen, nire proiektua lantzen, eta emakume batzuei egin nizkien erretratuez osatutako lan bat egin nuen. Bien bitartean, sarean begiratu nuen nola uzta nitzakeen argazkilaritza eta horren bidez ongizatea sortzea, eta Irudiaren Pedagogia Bisual eta Terapeutikoa graduondokoa topatu nuen. Lana aurkeztu, eta beka eman zidaten.

Ez zait ahaztuko irakasleak esan zidana lehen eskola egunean: 'Ongi etorri argazkilaritzaren beste aurpegira, B aldera'. Harritu egin ninduen horrek, eta argazkiak egiteko beste modu bat lantzen hasi nintzen. Ohartu nintzen bekarako aurkeztu nuen proiektuko emakumeak nire isla zirela: nire barne galdera askoren erantzunak zeuden haiengan. Magikoa iruditu zitzaidan, eta orain, besteen esku jarri nahi dut metodologia hori.

Ari zara horretan, ezta? Emakume taldeekin tailerrak egiten dituzu.

Bai. Hasieran harritu egiten dira, baina intriga dute, ikusi

nahi dute ea zer lantzeko gai diren irudien bidez. Ikasten dute elkarri komentarioak egiten, eta jabetzen dira sortzen dituzten irudien atzean dagoenaz. Norbere burua ezagutzeko, ahalduntzeko, elkarri eusteko, elkarrekin indartsuago izateko bidea da argazkilaritza terapeutikoa. Hala ere, nahiko nuke beste talde batzuekin ere lan egin, nerabe eta gazteekin, adibidez.

Erakusketa honetan, argazki batzuek tamaina handiagoa dute besteek baino. Zer dela eta?

Egia da, irudi batzuek presentzia handiagoa dute, oso esanguratsuak dira. Hala ere, beste batzuk txikiagoak izanagatik, ez dira garrantzi gutxiagokoak: ezker aldeko triptikokoetan, adibidez, nire barrenak daude, sustraiak, askatasun beharra, emakumeen eta gizonen arteko elkarrizketa bat ere badago... Konturatu naiz lehenengoz ari naizela nire lanari buruz horrela hizketan!

Zuri-beltzak dira hamabi irudiak, eta esposizio bikoitzaren teknikaren bidez eginak.

Izugarri gustatzen zait zuri-beltza, nitaz hitz egiteko garaian hizkuntza hori erabiltzen dut, eta orain arteko lan gehienetan ere bai. Esposizio bikoitza nire galderei erantzuteko modu gisa erabili dut: nire burua non erretratatu erabaki eta gero, jolas moduan, basoari egiten nion galdera argazki batekin, eta berak erantzun egiten zidan, beste batekin. Irudi plastiko bat sortzen da horrela, fusio bat. Argazkiak egin eta gero, denbora batez ordenagailuan uzten nituen, eta gero editatzen nituen.

Natura, basoak... Non ateratu dituzu argazkiak?

Cabo de Gatan (Almeria) batzuk, Artikutzan beste batzuk... Toki hori oso esanguratsua da niretzat, ama nafarra delako eta aita gipuzkoarra; Artikutza bien arteko mugan dago, eta horrek esanahia du niretzat. Isaban (Nafarroa) ere izan naiz, Idoia izenaren jatorria arakutzen.

Lan pertsonal bat erakusten duzun lehen aldia, non eta zure herrian.

Berezia izan da, nire jendearen aurrean lan hau erakustea, egia esan emozionantea da. Irekieran urduri sentitu nintzen, baina eroso ere bai, goxo. Hilaren 18a eta gero, beste herri batzuetara eramateko asmoa dut, hasi naiz hori mugitzen.

Irakurri elkarrizketa osoa www.txintxarri.eus atarian



Aretoa, jendez beteta. TXINTXARRI

Aretoa, ikusle lepo inaugurazioan

Martxoko lehen egunean inauguratu zuen erakusketa Idoia Telleria Maritxalarrek, eta TXINTXARRI-ri emandako elkarrizketan adierazi zuenez, "urduri eta emozionatuta" sentitu zen egun horretan, lehen aldia delako lan pertsonal bat jendaurrean erakusten duena. Herriar ugari bertaratu ziren esposizioko hamabi irudiak ikustera, eta Antonio Mercero gunea txiki geratu zen zenbait unetan.

Irekiera ekitaldian eta hurrengo egunetan zenbait iritzi jaso ditu argazkilariak: "Ikusle bakoitzak bere erara interpretatu du lana: 'Argazki batzuk ulertu ditut, besteak ez, bideoa asko gustatu zait...'. Erakusketa honetako irudien helburua ez da ikusle guztiak ulertzea, baizik eta nire barne ariketa eta hausnarketa kanal horren bidez islatzea: hori izan da abiapuntu eta xede, hasieratik. Inauguraziora etorri zen pertsona batek esan dit argazkietako hiru ezin dituela burutik kendu, eta horrelakoek asko poztzen naute".

Ni naiz, Idoia oraindik ikusterik izan ez dutenak astegunetan joan daitezke, 18:00etatik 20:00etara, edo asteburuetan bestela, 12:00etatik 14:00etara edo 18:00etatik 20:00etara. Azken eguna hilaren 18a izango da, ostirala. Sarrera doakoa da.



Udal ordezkariak eta teknikariak Martxoaren 8ko egitaraua aurkezteko agerraldian. TXINTXARRI

Martxoaren 8ra begirako egitaraua aurkeztu dute

Adin-tarte guztiei zuzendutako egitasmoak antolatu ditu udalak eta martxoaren 16ra arteko egitaraua osatu. Erakusketak, antzezlanak, film proiektzioa eta elkarretaratzea iragarri ditu. Kartel lehiaketara aurkeztutako lanak bozkatzeko aukera ere izango dute herritarrek

Txintxarri

Lasarte-Oriako Udalak hainbat egitasmo iragarri ditu Martxoaren 8a dela eta. Agustin Valdivia alkateak, Gizarte Zerbitzuetako batzordeburu Lourdes Acevedok eta Emakumeen Zentroko arduradun Yoana Azpitartek eman dute horren berri asteen. Adierazpen bateratuaren berri, ordea, egunotan emango dute;

Gizarte Zerbitzuetako batzordean aurkeztu eta onartu bezain laster helaraziko dutela iragarri dute.

MARTXOAREN 1ETIK 8RA

Martxoaren 8ko kartel lehiaketako lanen erakusketa. Aurten ikastetxeek parte hartu dute, eta 100 lan baino gehiago jaso ditu udalak. Herritarrek lan horiek

bozkatu ahal izango dituzte, Emakumeen Zentroan (17:00etatik 19:00etara).

MARTXOAREN 1ETIK 18RA

Idoia Telleria Maritxalar argazkilaria, formatzailea eta bideratzaile lasarteoriatarrek *Ni naiz, Idoia* argazki erakusketa zabalduko du. Emakumeen

ahalduntzeari eta nortasunari buruzko argazki eta bideo proiektu pertsonala da, eta Antonio Mercero erakusketa-aretoa joan beharko dira herritarrek hori ikustera, honako egun eta ordutegian: astelehenetik ostiralera, 18:00etatik 20:00etara. Asteburuetan, berriz, 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara.

MARTXOAREN 5EAN

Urteroko zumba maratokia egingo dute Okendo plazan, 10:15etatik 12:30era. Jarduera horri lotutako ohar bat zabaldu du udalak; aurten ez dute urik banatuko, beraz, parte-hartzaile bakoitzak bere botila eraman beharko du. Eurria egingo balu, Loidibarren frontoian egingo dela ere iragarri dute.

MARTXOAK 8AN

Urtero bezala, elkarretaratzea deitu dute, 12:00etan, Okendo plazan. 18:00etan, berriz, kartel lehiaketako sari banaketa egingo dute Emakumeen Zentroan.

MARTXOAREN 9AN

Ikastetxeetako haurrak, Eidabe antzerki taldearen *Piztu! EmakumeON energia* antzezlanak ikustera joango dira. Manuel Lekuona Kultur Etxean izango da, 11:00etan.

MARTXOAREN 10EAN

Ikastetxeetako haurrek ipuin kontaketa saioa izango dute Sorgina Txirulinen eskutik.

MARTXOAREN 11N


Helduentzako umorezko ikuskizuna iragarri dute. *The Show Must go on* obra eskainiko dute, kultur etxean, 19:30ean. Sarrerak salgai daude 3 euroren truke.

MARTXOAREN 13AN

Petite Maman filma proiektatuko dute. Iazko Zinemaldian publikoaren saria irabazi zuen ama-alabei buruzko fabula bat da. Manuel Lekuona Kultur Etxean izango da, 19:30ean, eta sarrerak sei euro balio dituzte.

MARTXOAREN 16AN

Berdintasunari buruzko gaiak jorrazteko bideo foruma antolatu dute Biyak Bat zaharren egoitzan. 18:00etan izango da.



Aurtengo kartel iragarlea. L-OKO UDALA

Mugimendu feministaren aldarrikapen jarduerak

Emakumeen Nazioarteko Eguren harira, zenbait ekimen antolatu ditu taldeak eta horien berri eman dio TXINTXARRI-ri. Berdintasun teknikariaren beharra aldarrikatuko dute

Txintxarri

Lasarte-Oriako mugimendu feministak ere iragarri ditu Martxoaren 8aren harira antolatu dituen egitasmoak. Udalarik Berdintasun teknikaria eskatzeko sinadura bilketa abiatu zuten taldeko

kideek 2021eko abenduan, eta horri eusteko asmoa dute egunotan ere. Hala iragarri dute egitarauaren afixan: "Berdintasun teknikaria behar dugu udalean, herriak berdintasun plana edukitzeko".

MARTXOAREN 4AN

Trikipoteo informatiboa iragarri dute, Berdintasun teknikaria eskatzeko sinadura bilketa egiteko. Okendo plazatik abiatuko da, 19:00etan.

MARTXOAREN 5EAN

Sinadura bilketari jarraipena eman asmoz, mahai informatiboa jarriko dutela jakinarazi du mugimendu feministak. Okendon izango da hori ere, 12:00etan.

MARTXOAREN 8AN

Manifa burrunba deitu dute. Bertan parte hartu nahi dutenek danborrak eraman behar dituztela ohartarazi du mugimenduak. 19:00etan abiatuko da, Okendo plazatik.



Lasarteoriatarrek, 2021eko abenduaren 12an egindako sinadura bilketa. TXINTXARRI

Lasarte-Oria ere mozorrotu da

Inauterietan, giro ederra

Gogotik ospatu ditu Inauteriak Lasarte-Oriak. Koronabirusaren gaineko osasun neurri ia guztiak bertan behera utzi izanak hauspotu egin du festa giroa, eta asko izan dira azken orduan kalera mozorrotuta atera eta otsaileko azken asteburuari kolore berezia ematera animatu diren herritarrak. Otsailaren 25 eta 26an ospatu dituzte Inauteriak ikastetxe, eragile, konpartsa, erakunde eta norbanakoez. 25ean, ostiralarekin, astea ondo ixteko, ikastetxeetako irakasle eta ikasleek jarri zuten irudimena dantzan, eta baita gorputza ere, koreografia polit askoak egin baitzituzten. Egun horretan bertan, iluntzean, talentua soberan dutela erakutsi zuten Ttakun Kultur Elkartearen Amaraun Kluba, Gazte Kluba eta Kuadrillategi egitasmoetan parte hartzen duten gazteek. Hurrengo egunean herritarren eta konpartsen txanda izan zen: kaleak eta kultur etxea hartu zituzten, hurrenez hurren. Igandean, azkenik, Euskal Inauteriak ospatu zituzten, eta kalejira bat egin erdiguneko zenbait plazatan barrena.



Sagardotegi kalean hasi zuten ibilbidea txantxoek. Musika eta kantua ez ziren falta izan kalejira osoan. TXINTXARRI



Haur, gazte zein heldu, guztiek gogotik gozatu zuten Euskal Inauteriaz. TXINTXARRI



LH zein DBH mailetakoz gazteek Talent Show lehiaketan parte hartu zuten otsailaren 25ean, besteak beste, Gaztelekuan. TXINTXARRI



Goian, Lantzeko inauteriak, Garaikoetxean. Behean, Sasoetako ospakizunak. TXINTXARRI



Intzak Parrandan konpartsako kideak izan ziren oholtzara igotzen lehenak. TXINTXARRI

Jalguneko kideek koreografia ederra taularatu zuten. TXINTXARRI



Eskorbuto taldeko gitarrista. TXINTXARRI



Kultur etxeko koreografia auzora eraman zuten Sasoeta Sasoianek. TXINTXARRI



Txarangak herria girotu zuten otsailaren 26an. TXINTXARRI



Barbie eta Ken panpin dotore askoak azaldu ziren herrian. TXINTXARRI



Kuadrilla hau indioz eta bakeroz mozorrotu zen. TXINTXARRI



lazgo abenduan eraitzia izan zen Buruntza mendiko gurutzea berriz jartzeko operazioa prestatu zuten falangista pare honek. TXINTXARRI

Taula Xake Kluba sortu da Lasarte-Orian

Lasarte-Oriako xake zaletu talde bat bildu da eta elkarte berri bat sortu dute. Adin guztietarako ekimenak antolatu nahi dituzte eta denen elkargune izan. Herritarrek gonbidatzen dituzte xakean jokatu eta elkartearekin bat egitera

Nerea Eizagirre

Duela 20 urte, Lasarte-Oriako Xake Klubak biltzen zituen herriko xake zaletuak Blas de Lezo 11 zenbakiko Danok Kideren lokalean. Nahiz eta klubak bere jarduna eten, bere izaera mantendu da eta 2021. urte amaieran, orduko kide talde batek kluba berriro irekitzea erabaki zuen. Pausoz pauso, Taula Xake Kluba sortu dute kolaleku berean, eta Lasarte-Oriako xake zaletasunari berriro bultzada ematea dute helburu. Euren bildu gara prozesuari eta taldeari buruz gehiago jakiteko.

Azaldu digutenez, "duela 20-25 urte lokal honetan bertan jokatzeko genuen. Orduan ikasketak dela, semeak direla, kluba itxi zen".

Baina orain dela gutxi, kideetako batek berriro lokala eskatu, eta xake taldea martxan jartzeko proposamena egin zien beste kide batzuei, eta asko pentsatu gabe taldetxo batek



Taula Xake Klubeko kideak, Blas de Lezoko lokalean. TXINTXARRI

aurrera egin du, Taula Xake Kluba ireki arte: "Pixkanaka, pausoak ematen joan gara. Lokala eskatu dugu, kluba legalizatu eta federatu... Zerbait serioagoa egin dugu".

Orain, euren zaletasunak gozatzeko lekua dute. Danok Kidek euren lokaletako bat utzi

dio taldeari, eta horregatik, esker hitzak besterik ez dituzte xake klubeko kideek.

"Oraingoz, lau mahai ditugu xakean jokatzeko. Taldeko lehiaketetan, talde bakoitzean lau pertsonak jokatzeko dute, eta horregatik dago horrela. Hala ere, espazioa ongi aprobetxatu

behar dugu beste ekimenik, antolatu nahi badugu behintzat", jakitera eman dute.

Adin ezberdinetarako formazio jarduerak, herri mailako txapelketa, San Pedro Jailetan erakustaldia... ideia asko dituzte eta pixkanaka antolatuko dituztela adierazi dute. "Esate baterako, hurrei ikastaroak eman ahal izateko, begirale titulua ateratzeko trebakuntza jasotzeko izapideak egiten ari gara", nabarmendu dute.

Lehian

Entrenatu, maila ondu, trebatu... Hori ere kideen helburuak. Batzuek txapelketak ere dituzte buruan. Hori dela eta, lehiaketa federatuetan jokatzeko ari dira taldeko kideak. "Abenduan, elkarte sortzen ari ginela, Gipuzkoako banakako txapelketan parte hartu genuen. Orain taldekakoan ari gara. 3. mailan hasi gara", aipatu dute.

Banakako txapelketa ez da eurek espero bezala joan. "Adin bat dugu, eta neuronon elastikotasuna ez da 20 urtetako gazte batena. Gazte jende asko dago lehiaketan eta ondo trebatua", azaldu dute.

Taldekakoan, berriz, bigarren postuan daude lehen sailkatutik puntu batera. Hurrengo jardunaldian, Eibar izango dute aurkari.

Kide berriak

Ez dira kide asko, eta taldea handitzeko ahaleginetan dabilzala

onartu dute. Horretarako, sare sozialetan talderen berri emango duten kontuak ireki dituzte. Horien bitartez, pixkanaka, xakearen zaletuak eta herritarrek taldera hurbiltzea espero dute.

Adin guztietako herritarrentzat ateak irekita dituztela argi utzi dute: "Xakea edozein adinetan joki daiteke. Xakea osasuntsua eta terapeutikoa da. Adinduentzat zein Alzheimerreko edo narriatze kognitiboa duten pertsonentzako ona dela diote ikerketa ugari".

Haur eta gazteentzako ere elkargune izan nahiko lukete: "Formatzeko, entrenatzeko eta eta xakean jokatu ahal izateko gunea eskaini nahi diegu. 12 urtez azpiko kasuan, nahiz eta ezin lehiatu, Eskola Kirolaren barruan euren ikastolan ez bada xakerik egiten, hemen euren lekua izan dezakete".

Eta, batez ere, emakumei egin nahi diete deia. "Oraintxe bertan, ez dugu emakumerik taldean. Nabarmendu nahiko genuke xakea mistoa dela. Ez dago abantaila fisikorik edo indar gehiago edo gutxiagoko pertsonarik. Guztiak berdina gara".

Horregatik, Taula Xake Klubeko kideek herritarrei gonbita egiten diete, ostiraletan, 17:00etatik 20:00etara Blas de Lezoko lokalera hurbildu eta xakea probatzera. "Xake piezak mugitzea bakarrik dela dirudi, baina behin jokatu jakin-mina sortzen du", adierazi dute.

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA
OHOREZKO ERREGIONAL MAILA
Leintz Arizmendi - Ostadar SKT Larunbata. 13:00. Mojategi, Arrasaten.
GORENGO MAILA, IGOERA
Zumaia FT - Ostadar SKT Larunbata. 17:45. Aita Mari, Zumaian.
ERREGIONALEN 1. MAILA, IGOERA
Irauli Bosteko KK - Ostadar SKT Larunbata. 17:30. Matigoxotegi, Donostian.
OJM, MAILA MANTENTZEKO FASEA
Ostadar SKT - Burumendi FG Larunbata. 17:30. Michelin kirol gunean.
JUBENIL 1. MAILA, KOPA
Ostadar SKT A - Ordizia KE Larunbata. 15:30. Michelin kirol gunean.
Kostkas KE C - Ostadar SKT B Larunbata. 15:30. Matigoxotegi, Donostian.
OKM, MAILA MANTENTZEKO FASEA
Ordizia KE - Ostadar SKT Larunbata. 16:00. Altamira, Ordizian.
KADETE 1. MAILA, IGOERA
Martutene KE A - Texas Lasartearra Larunbata. 12:00. Martutene, Donostian.

KADETE 1. MAILA, KOPA
Ostadar SKT A - Urnieta KE B Larunbata. 13:15. Michelin kirol gunean.
Amara Berri KE - Ostadar SKT B Larunbata. 15:30. Martutene, Donostian.
ARETO FUTBOLA
1. MAILA
Oiartzun KE - Eguzki Arkupe Reh. Larunbata. 18:30. Elorsoro kir., Oiartzunen.
2. MAILA
Eguzki Ventanas Isu Leioak - Makax Gorka Margoak Ostirala. 20:50. Maialen Chourraut kirol.
GAZTEEN MAILA
Eguzki AF - Anoeta FT Larunbata. 13:30. Maialen Chourraut kirol.
SASKIBALOA
SENIOR 1. MAILA
Digitarte Hoops - Ostadar SKT Larunbata. 18:00. Paco Yoldi kir., Donostian.
SENIOR 2. MAILA
TECNUN - Ostadar SKT Larunbata. 19:00. TECNUN, Donostian.
SENIOR 3. MAILA
Mondragon Unibertsitatea - Ostadar SKT Larunbata. 16:15. Musakola kir., Arrasaten.

JUNIOR ERRENDIMENDU
Ostadar SKT - Goierri UZ Baleike Larunbata. 11:30. Maialen Chourraut kirol.
KADETE ERRENDIMENDU
Easo Ibaeta Basket Buruntza - Ostadar SKT Larunbata. 16:00. Bidebieta kirol., Donostian.
KADETE PARTAIDETZA
Eskoriatza KE - Ostadar SKT Larunbata. 11:30. Manuel Muñoz kirol., Eskoriatzan.
BOLEIBOLA
JUBENIL MAILA
Aldapeta Maria B - Ostadar SKT (Atzeratutako partida) Larunbata. 16:00. Aldapeta Maria ikastetxea, Donostian.
Ostadar SKT - Aldapeta Maria A Igandea. 11:00. Maialen Chourraut kirol.
KADETE MAILA
Ostadar SKT - Hernani KE 1 Larunbata. 09:30. Maialen Chourraut kirol.
PILOTA
JUBENILAK 2. MAILA - UDABERRI
Intza - Ataun Igandea. 11:30. Michelin kirol gunean.

ERRUGBIA
OHOREZKO B MAILA
Uribealde RKE - Gesalaga Okelan Zarautz RT Larunbata. 16:00. Atxurizubi, Mungian.
EUSKAL LIGA
Iruña RC - Gesalaga Okelan Zarautz Beltzak RT Larunbata. 16:00. UPNA, Iruñean.
XAKEA
3. MAILA
Lasarte-Oriako Taula Xake Klubak taldekako Gipuzkoako Txapelketako jardunaldia du. Eibar izango du aurkari. Larunbata.
TENISA
TALDEKAKO TXAPELKETA
LOKEko tenis jokalarik gazteak taldekako Gipuzkoako txapelketa jokatzeko ari dira. Larunbata. Mons kiroldegia.
IGERIKETA
ALEBIN LIGA
Buruntzaldea IKTo igerilari gazteek Alebin Ligako 5. jardunaldia lehiatuko dute. Larunbata. 15:30. Aiurralde kir., Andoainen.

TXIRRINDULARITZA
USURBE PROBA
Herriko kadete mailako txirrindulariek errepideko denboraldiari hasiera emango diote L. Usurbe Proba. Larunbata. 11:00. Beasainen.
ERRETERIA HIRIA SARIA
Herriko junior mailako txirrindulariek Erreteria Hiria saria lehiatuko dute. Igandea. 16:00. Erreterian.
ATLETISMOA
ESKOLARTEKOA
Ostadar atletismo saileko infantil zein aalebin mailako gaztetxoek Eskolarteko jardunaldia dute. Larunbata. 10:45. Hernanin.
LASTERKETAK
LILATOIA
Hainbat herritarrek 32. Lilatoi Lasterketan parte hartuko dute. Igandea. 10:30. Donostian.
AIKO MENDI LASTERKETA
Hainbat herritar Aiako XI. Mendi lasterketan lehiatuko dira. Igandea. 10:30. Aian.

Furundarena, seigarren Espainiako txapelketan

Ostadar Atletismo saileko Naroa Furundarena Absolutu mailako Espainiako txapelketan lehiatu da. Jauzi hirukoitzean lortu du bere markarik onena. Harrobia ere fin ibili da Adin Txikikoen Mailako Euskadiko txapelketan; hiru domina jantzi dituzte

Txintxarri

Ostadar Atletismo saileko Naroa Furundarena aurten ere maila absolutuko Espainiako atleta onenen artean lehiatu da. 23 urtez azpiko lehiaketan egin modura, Lasarte-Oriako atletak Ourensen antolatu den maila absolutuko Espainiako txapelketan parte hartu du luzera-jauzi eta jauzi hirukoitzeko probetan. Eta azken proba horretako seigarren postua eskuan, era ezin hobean esan dio agur pista estaliko denboraldiari.

Otsailaren 26an, luzera jauziko probari egin zion aurre Furundarenak. Hirugarren saiakeran egin zuen bere jauzirik hoberena, 5,73 metro; marka, ordea, ez zen zortziko finalerako txartela lortzeko baliagarri izan; hiru zentimetroengatik kanpoan geratu zen. Beraz, bederatzigarren postuan amaitu zuen lehiaketa.



Naroa Furundarenak jauzi hirukoitzeko seigarren postua eskuratu du. TXINTXARRI

Ia 24 ordu igaro ostean, berriz, jauzi-hirukoitza bere proba dela argi utzi zuen herritarrak, baita presiopean ongi erantzuten duela ere.

Lehen jauzia ez zen baleko izan eta bigarrenean ez zen 12 metroetara iritsi. Alabaina, erabakigarria zen hirugarren jauzian zortziko finalerako

sailkapena lortu zuen 12,47 metroko jauziarekin.

Hurrengo saiakeretan ez zuen marka hori gainditzerik izan, ezta Furundarenaren atzetik sailkatu ziren aurkariak ere. Ondorioz, seigarren postua eskuratu zuen herritarrak.

Oscar Goikoetxea entrenatzaileak gogoratu duen moduan, "bere emaitzarik onena da Espainiako txapelketa absolutuan"; iaz bere lehen parte hartzean zazpigarren postua eskuratu zuen.

Txapelketa horrekin pista estaliko denboraldiari amaiera eman dio Ostadarreko atletak eta atletismo saileko prestatzaile Goikoetxeak denboraldiaren irakurketa positiboa egin du: "pozik gaude Naroak egindako lanarekin. Bere markak ondu ditu bai jauzi hirukoitzean, baita luzera-jauzian ere. Eta 23 urtez azpiko Espainiako txapelketan zilarrezko domina eskuratu zuen".

Orain aire zabaleko denboraldia prestatzeko hilabete izango du herritarrak. Apirila hasieran, markak egiteko lehen proba libreak izango dira.

Hiru domina

Era berean, Adin Txikiko Euskadiko Txapelketa jokatu zen Donostiako Antonio Elortza belodromoan. Ostadar taldeko bederatziko atleta gazteak parte hartu zuten. Horietatik seik

finaletan egotea lortu zuten eta hiruk domina zintzilikatu zuten.

16 urtez azpiko mailako podiumera igo ziren talde urdin-beltzeko atleta gazteak. Aitor Eizaguirrek (8,30 m.) eta Aiala Ramosek (8,58 m.) pisu jauztiketako bigarren eta hirugarren postua eskuratu zuten, hurrenez hurren. Eta Oinatz Almagrok brontzezko postuan amaitu zuen jauzi hirukoitzeko lehia (10,81 m.).

Alex Alkain, berriz, 18 urtez azpiko mailako 60 metro lasterketako finalera sailkatu zen, 7,40 markari esker. Tamalez, irteera baliogabe bat egin eta kaleratua izan zen. Ondorioz, zortzigarren postuarekin konformatu behar izan zuen.

Eta 200 metroko sailkapen proban zein B finalean ere izan zen atleta gaztea. Bere markarik onena 24,06 izan zen.

Horiez gain, 20 urtez azpiko pisu jauztiketako probako finaletan, Eneko Andonegi bosgarren izan zen (7,91 m.) eta Nahia Surutusa, seigarren (7,80 m.); 16 urtez azpiko proban, berriz, Nora Manzanalek zazpigarren postua eskuratu zuen (7 m.). Eta 60 metro lasterketako sailkapen probetan parte hartu zuten Iraia Alkortak (16 urtez azpiko maila) zein Unax Riezuk (18 urtez azpiko maila).

Bestalde, BAT taldeko kide Unax Goenaga herritarrak 20 urtez azpiko 1.500 m. lasterketan parte hartu zuen (4.27,56).

Gesalaga Okelan Zarautzek ezin izan du Vithas Gaztedi garaitu

Partida gogorra izan da. Aukera gutxi sortu arren, Gasteizko taldeak ongi baliatu ditu erasoak irabazteko

Txintxarri

Ohorezko B Mailako jardunaldia izan zen otsailaren 27an Gasteizko Gamarra zelaian. Vithas Gaztedi eta Gesalaga Okelan Zarautz taldeak izan ziren aurrez aurre.

Partida gogorra izan zen, puntu gutxikoa eta azken minutura arte borrokatu behar izan zuten bi taldeek. Alabaina, gasteiztarrek euren aukerak ongi baliatuz garaipena lortu zuten bi punturengatik, 23-21.

Bi taldeak gogotsu atera ziren zelaira eta baloiaren jabetza borrokatu zuten.

Hogeigarren minutura arte, ez zen markagailuan aldaketarik

izan. Orduan, Vithas Gaztedi etxeko taldeak entsegua eta gauzatzea lortu zituen.

Zarauzko taldea saiatu arren, ez zuen entsegu marrara gerturatzetik izan. Gasteiztarrek, berriz, bi zigor-ostiko gauzatu zituzten markagailuan ihes egiteko, 13-0.

Atsedendaldira iritsi baino lehen, ordea, Zarauzko jokalariek aldeko bi zigor-ostiko sartu eta 13-6 gerturatu ziren.

Bigarren zatia indartsu hasi zuen Gesalaga Okelan Zarautz taldeak eta berdinketa lortu zuen entsegu eta gauzatze bati esker.

Behin markagailua parekatuta, bi taldeak gogor saiatu ziren metroak irabazi eta entsegua egiten. Zoritxarrez Vithas Gaztedik bi minututan partida irauli zuen. Bi entsegu jarraian egin eta hamar puntuko alde lortu zuen.

Zarauzko jokalariek, ordea, ez zuten amore emango eta euren indar eta kemenez, zigor-ostiko eta entsegua egin zuten markagailuan gerturatzeko. Azken minutura arte, borrokan aritu ziren arren, ez zuten gailentzerik izan.

Gavilanen lesioa

Aurreko jardunaldian Gabriel Gavilan herritarrak Gesalaga Okelan Zarautz taldea debuta egin; oraingoan hamabostekoan izan zen eta berarekin batera zelaira atera zen Xabier Rekondo herritarrak ere. Tamalez Gavilanek ez zuen partida amaitu; hatz batean min hartu zuen.



OSTADAR IPAR MARTXA

Listorretako inguruak ezagutzen

Ostadar Ipar Martxa taldeko kideek otsaileko irteera egin zuten otsailaren 26an. Errenteriako Listorreta parkeko inguruetatik ibilbide zirkularra egin zuten. Besteak beste, Aizpitarte kobazuloa, Pertsebelgo gaina, Aldura mendia eta Malbazarreko lepoa igaro zituzten. Eguraldia lagun, Kantauri itsasoko eta inguruko ikuspegi ederra izan zuten mendi gainetatik. Arduradunek jakitera eman dutenez, kide berriak dituzte taldean eta horien artean, Retinosis Gipuzkoako Bidesare elkarteak daude. Horrez gain, Izan Iñurri proiektuarekin batera, minbizia duten edo izan duten pertsonentzako ikastaroak antolatzen hasi da taldea.

Juniorrek, ongi landutako garaipena

Ostadar Saskibaloia saileko Junior Errendimendu taldeak Ligako bigarren sailkatua den BKL Esparru garaitu du. Partida gogorra jokatu du talde urdin-beltzak. Hirugarren laurdena berdinetarekin amaitu ostean, azken hamar minutuak erabakigarriak izan dira

Txintxarri

Gipuzkoa Saskibaloia Ligako maila gehienetan ez den jardunaldirik izan otsailaren 26-27 asteburuan. Alabaina, Junior errendimendu taldeak martxoaren 20an jokatu beharreko partida aurreratu eta garaipena erdietsi zuen. Ligako bigarren sailkatu den Beasaingo BKL Esparru taldea izan zuen aurrez aurre, Maialen Chourraut kiroldegian.

Garaipen landua izan zen. "Beasainek, talde oso polita du eta gauzak oso zail jarri zizkigun. Bagenekien partida lehiatua eta zaila izango zela, eta hala izan zen," azaldu du Andoni Alduncin Ostadarreko entrenatzaileak.

Lehenengo laurdena parekatua izan zen. Bi taldeek ongi baliatu zituzten aukerak, baina aurkariak hartu zuen aurre (10-14). Bigarren laurdenean, talde urdin-beltzak laurden "oso serio eta on bat eginda" 23-12ko partziala egin zuen eta norgehiagoka itzuli.

Atsedenaldira, beraz, zazpi puntuko aldearekin iritsi zen etxeko taldea eta Alduncin hitzetan, "neskek garaipenean sinesten zuten".



Ostadarreko jokalaria, neurketako eraso batean. TXINTXARRI

Ostean, ordea, BKLkoek presioa egiteko modua aldatu zuten eta horrek min handia egin zion Ostadarri. Lau minututan 0-8ko partziala egin zuen Beasaingo taldeak eta aurreko laurdenean lortutako abantaila galdu zuen etxeko taldeak. Hala ere, 46nako berdinetarekin amaitzea lortu zuen Ostadarrek

Beraz, talde urdin-beltzeko prestatzaileak adierazi moduan, azken laurdena "berdinduta eta asko jokoan" hasi zuten.

Orduan, Ostadarreko jokalariek guztia eman eta azken laurden paregabea egin zuten. Erasoan

fin ibili ziren, baina defentsan batez ere lan bikaina egin zuten. 18-6 partziala lortu zuten eta 64-52 irabazi zuten.

Junior Errendimendu taldeko arduradun Alduncin harro dago taldeaz eta jokalariek partida hainbesteko heldutasunarekin jolastu izanaz.

Hurrengo neurketa ere zaila izango da Ostadarrentzat. Sailkapenean lehen postuan den Goierri UZL Baleike izango da aurkaria. Partida gogorra aurreikusitako arren, "dugun guztia emango dugu" aurreratu du talde urdin-beltzeko prestatzaileak.

Kadeteak ezin izan dira Trinketeko finalerako sailkatu

Hernaniren aurka jokatu dute Trinkete txapelketako finalerdia; ezin izan dute ezer egin aurkariaren aurka

Txintxarri

Intza Pilota elkarteko kadete mailako bikoteak hitzordu garrantzitsua izan zuen, otsailaren 27an. Trinkete txapelketako finalerdia jokatu zuten Lasarte-Oriako pilota elkarteko Beñat Olazabal eta Xuban Urdalleta pilotariek. Hernaniko bikotea izan zuten aurrez aurre.

Aurkaria nagusi izan zen eta Intzako pilotariak neurketako lehen minutuetan gauzak erraztu zituzten. Hotz hasi zuten partida eta pixkanaka lehiari neurri hartu zioten. Ostean, ederki moldatu ziren jokoan.

"Lehiaketa ona egin du Hernanik eta bagenekien zail izango zela irabaztea. Nahiz eta kadeteak

bakarrik sailkatu finalera, pozik gaude kadete zein jubenilek trinketean egindako lanarekin," adierazi du Jose Felix Solano Intzako prestatzaileak.

Finalaren zain

Udaberri txapelketari dagokionez, jubenil mailako bikotea dagoeneko martxoaren 27ko finala du buruan eta aurkaria nor izango zain dago.

Alabaina, finalari aurre egin baino lehen, Haritza Diaz de Gereñuk eta Peru Urdampilletak lehen faseko azken jardunaldia jokatuko hilaren 6an, igandearekin.



Benjaminen KZL jardunaldian parte hartu zuten igerilariak. BURUNTZALDEA IKT

Igerilari txikiek ederki egin diote aurre estiloen erronkari

Buruntzaldea IKTko igerilari gazteenek Ligako jardunaldi "zaila" izan dute Majori kiroldegian

Txintxarri

Kirol Zehaztasun Ligako hirugarren jardunaldia lehiatu zen otsailaren 26an, Ordiziako Majori kiroldegian. Buruntzaldea IKTko hamahiru igerilariak parte hartu zuten eta euren ikaskuntza era egokian aurrera doala erakutsi zuten.

Bi multzotan banaturik proba ezberdinak egin zituzten. 2012 eta 2013 urteko igerilari gazteek bular estiloko 50 metroko proba eta tximeleta erako 6x25 m. errelebo mistoan parte hartzeko aukera ere izan zuten. Zaharrenek -2011ko haurrek eta 2010 urteko mutilek-, 50 m. estilo librean eta 100 m. edo 200 m. bular probak izan zituzten aukeran.

Buruntzaldea Igeriketa taldeko arduradunek azaldu modura estilo aldetik jardunaldi zaila izan zen igerilari gazteentzat: "ikasteko zailenak diren aldi bereko estiloetan egin behar

izan zituzten probak, bular estiloan banakako probatan eta tximeletan erreleboan".

Jarrera eta garapena

Hala ere, prestatzaileek nabarmendu dutenez, igerilari txiki guztiak primeran ibili ziren: "Urduri egon ziren arren, guztiak jarrera bikaina erakutsi zuten jardunaldi osoan zehar, euren erronkei aurre eginez, ikasitakoa aplikatuz eta talde giro alai mantenduz".

Adin horietan Buruntzaldeako kideentzat lehiaketa emaitzak baino gehiago arautegiaren inguruko ezagutza eta arauen betetzea zein igeri egiteko modu egokia dira garrantzia gehien duten arloak, horregatik gustura ateratzen ziren prestatzaileak. Bigarren multzoko kideek segurtasun eta ezagutza handiagoarekin igeri egin zutelara ere adierazi dute.

Muskulazio-makina berriak

Lasarte-Oriako Udalak lau muskulazio-makina berri erosi ditu Maialen Chourraut kiroldegiko muskulazio gelarako. Era honetara, udalak kiroldegiko aretoetako makineria berritzeko eta mantentzeko helburuari eusten dio. Ekipamenduaren adjudikazioduna Bargin S.L. enpresa da eta makinaren kostua guztira 14.490 eurokoa da.



LASARTE-ORIAKO UDALA


KOMIKIA



ZORION AGURRAK



Oihan
Zorionak txingurrin!
Muxu pila familia osoaren partez.



Oier
Zorionak maitia, ondo pasa zure 13. urtebetetzean! Ondo ospatu! Eñaut, aiton-amonen eta familiaren partetik.



Iñigo
Zorionak artista! Ba al dakizu Hawaii-BOMBAY abestia jotzen. Tubeatzen ez dakigu, baina edaten... ederrak prestatzen dituzu! Bat nahi dugu astebururako!

Urte askotarako!

Zorion itzazu urteak bete, ezkondu berri edo urteurrena bete duten lagunak eta senitartekoak, baita jaioberriak ere

Internet

- txintxarri.eus/zorionagurrak.
- Zure erabiltzailearekin sartu/ Erabiltzaileak ez baduzu izena eman.
- Bidali zure zorion agurra formularioa betetz.
- Zorion agurra formularioan zehaztutako datan argitaratuko da webgunean eta ostiralean paperean.

Posta elektronikoa

- Mezua bidali txintxarri@ttakun.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, urtebetetze eguna, urteurrenaren data edo ezkontzaren data eta nahi duzun testua.

Osteguneko 16:00ak arte jasotako zorion agurrak.

GUARDIAKO FARMAZIAK

OSTIRALA, 4	GIL	EGUNEKO FARMAZIAK: 09:00-22:00
LARUNBATA, 5	ACHA-ORBEA	DE ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943-36 26 52
IGANDEA, 6	ACHA-ORBEA	ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943-36 35 49
ASTELEHENA, 7	URBISTONDO	DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943-37 11 51
ASTEARTEA, 8	LASA	LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943-36 17 74
AZTEAZKENA, 9	GIL	GIL: Kale Nagusia 24/ 943-36 07 08
OSTEGUNA, 10	ACHA-ORBEA	URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943-36 65 67 GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943-01 95 21

GAUEKO FARMAZIA: 22:00-09:00

M. Gomez Bravo: Kale Nagusia 14, Hernani. 943-55 48 92

URTE OSOKO GUARDIAK APLIKAZIOA eskuragarri App Store edo Android Marketen


Informazio gehiago www.cofgipuzkoa.com webgunean eskuragarri.

EGURALDIA LASARTE-ORIAN


Ostirala, 4




Larunbata, 5




Igandea, 6




Astelehena, 7




Asteartea, 8



Asteazkena, 9



Osteguna, 10



Jaio da!

Eman jaiotzen berri TXINTXARRI-n.
Deitu 943-37 14 48 telefonora,
bidali haurren
izen-abizenak eta jaiotze data
txintxarri@ttakun.eus helbide elektronikora
edo 688 68 35 10 WhatsApp zenbakira

SUDOKUA

		4	6	2	5			8
		5		4			6	
6	8	2				4	5	9
5	6	1				8	4	
7		8			1	6	9	
	4			8	6			7
4		9					2	5
8	1					9		4
	5		3	9	4			

TELEFONOAK

UDALAREN TELEFONOAK:

ERREGISTROA: 943-37 16 29
EUSKARAKO ZERBITZUA: 943-37 61 84
KIROLDEGIA: 943-37 61 82
MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA:
943-37 61 81
GIZARTE ZERBITZUAK: 943-37 61 79
KIUB: 943-36 16 05
UDAL EUSKALTEGIA: 943-36 16 21
MUNTERI AEK: 607 62 52 33

LARRIALDIKO TELEFONOAK:

OSASUN ZENTROA: 943-00 79 60
DYA: 943-46 46 22
GURUTZE GORRIA: 943-36 39 53
UDALTZAINAK: 943-36 24 42
ERTZAINZA: 943-53 88 40
SOS DEIAK: 112

OHARRA

Algarve eta Cadizeko kostaldera bidaia

Biyak Bat elkarteak Portugalgo Algarvera eta Cadizeko kostaldera bidaia antolatu du. Irteera maiatzaren 25etik ekainaren 5era izango da.

Bidaiaren prezioa 740 eurokoa da elkarteko kideentzat; bazkide ez diren pertsonak 820 euro ordainduko dituzte. Logela individuala nahi dutenek 230 euroko gehigarria izango dute.

Interesa duten pertsonak bulegoko ordutegian (10:30-12:30) eman behar dute izena. Plaza erreserba egiteko 350 euro ordaindu behar dira.

Heriotzen berri eman

Inguruko norbaiten heriotzaren berri TXINTXARRI-n eman nahi baduzu, bidali zendutako pertsonaren izen-abizenak eta heriotza data txintxarri@ttakun.eus helbide elektronikora edo 688 68 35 10 WhatsApp zenbakira.

AZOKA TXIKIA

ETXEBIZITZA

inmolASARTE

Etxea saldu edo alokatu nahi baduzu jar zaitez gurekin harremanetan. Esperientzia handia dugu. Esku onetan zaude!

943-53 64 81 | 629 63 18 38
Inigo de Loiola, 2 behe. LASARTE-ORIA
info@inmolasarte.com

SALDU

Marina D'Or urbanizazio (Castellon) etxebizitza bat saldu nahi dut, hondartzako lehen lerroan kokatua: 68 metro ditu, hamalau metroko terraza, bi gela, bi bainugela, sukalde eta egongela. Lasarte-Oriako edo inguruko etxebizitza batengatik ere trukatu genuke. Harremanetarako zerbakia: 675 70 39 06

LANA

ESKAINITZA

Ettxeko lanak egin eta bi pertsona adindu zaintzeko pertsona behar da.

Interesdunek mendekotasuna duten adineko pertsonen arreta soziosanitarioan lanbide-prestakuntza izan behar dute. Salbuesenezko edo aldi bateko gaikuntzak ere balio du. Kontratu, nomina eta Gizarte Segurantzaren alta ematea eskaintzen da. Harremanetarako zerbakia: 656 41 15 10

ESKARIA

Adineko pertsonak zainduko nituzke. Zaintza ikastaroa egina dut. Interno edo orduka lan egingo nuke. Harremanetarako zerbakia: 676 18 84 11.

Lan bila nabil. Interno moduan edo orduka lan egingo nuke. Harremanetarako zerbakia: 663 49 98 41.

Garbiketa lanak egingo nituzke, edota pertsona adinduak zaindu. Berehala lanean hasteko prest. Harremanetarako zerbakia: 643 23 92 51

Ettxeko lanak egiteko edo haurrak zein adinekoak zaintzeko prest nago, goizetan, 10:00etatik 12:00etara. Harremanetarako zerbakia: 671 27 79 05.

Emakume euskalduna lan bila. Orduka lan egingo nuke. Ettxeko lanetan, garbiketan... Esperientzia handikoa eta profesionala garbiketan. Harremanetarako zerbakia: 673 55 62 89.

Pertsona serioa eta arduratsua eskaintzen da adineko pertsonak

zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Interna modura, asteburuetan edo ospitaleko zaintza egiteko. Lanean hasteko prest. Harremanetarako zerbakia: 663 48 84 38.

Pertsona eskaintzen da pertsona helduak zaindu edo garbiketa lanak egiteko. Externa, orduka, gauetan edo ospitalean gauak egiteko prest. Harremanetarako zerbakia: 634 27 81 98.

Ikasturtean zehar haurrak zainduko nituzke, eskolara sartu aurretik.

Harremanetarako zerbakia: 630 68 27 16.

SALEROSKETA

SALDU

Eskiak eta helduentzako botak saltzen ditut. Interesa duenak dei dezala 605 70 57 89 zerbakira.

Etxe aldaketa dela eta, zerbait altzari saltzen ditugu: bi plazako larruzko sofa, gorri ilun kolorekoa, egoera onean eta merke (300 euro); eta egongelarako altzari

dotorea, estilo klasikokoa, oso egoera onean (400 euro). Interesa dutenei argazkiak bidaltzeko prest. Harremanetarako zerbakia: 616 83 11 52.

BESTELAKOAK

HEZKUNTZA

Unibertsitateko ikaslea naiz, eta DBH mailako eskola partikularrak emateko zein edozein adineko umeak zaintzeko eskaintzen dut nire burua, edozein momentu eta ordutegitan lan egiteko prest. Harremanetarako zerbakia: 644 98 03 49.

Zientzia esparruko errefortzu saio partikularrak eskaintzen ditut, DBH eta Batxilergoko ikasleentzako, irakasgai askotan: Matematika, Fisika, Kimika, Marraketa, Teknologia, Biologia eta Geologia. Ingeniaritza Mekanikoko gradua eta bigarren hezkuntzako masterra ditut. Harremanetarako zerbakia, 697 45 97 96.

NABARMENDU ZURE EDUKIA

Iragarki nabarmenduak kobratuko dira soilik

TAMAINA BERRIA

Modulo txikia. 12€ (BEZ barne)
publizitatea@ttakun.eus

TAMAINA BERRIA

Modulo handia. 20€ (BEZ barne)
publizitatea@ttakun.eus
646 82 44 66

ESKELA


ESKELAK JARTZEKO

TEL: 943-37 14 48
edo TXINTXARRI erredakzioan

► Eskela Txintxarri paperean: **80 €**
► Eskela Txintxarri paperean + Txintxarri.eus-en: **90 €**

Txintxarri: doan eta euskaraz
Lasarte-Oriako etxe guztietan 943-37 14 48

MANTTANGORRI HIRIBUSA



Lanegunak

Antxisu	Zabaleta	Atsobakar	Kotxerak
08:00	08:10	08:15	08:20
08:40	08:50	08:55	09:00
10:30	10:40	10:45	10:50
11:00	11:10	11:15	11:20
11:30	11:40	11:45	11:50
12:05	12:15	12:20	12:25
12:30	12:40	12:45	12:50
13:00	13:10	13:15	13:20
13:30	13:40	13:45	13:50
16:30	16:40	16:45	16:50
17:00	17:10	17:15	17:20
19:30	19:40	19:45	19:50
20:00	20:10	20:15	20:20

txintxarri

www.txintxarri.eus

Argitaratzailea
Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4 (behea)
20160 Lasarte-Oria
G-20407557

Administrataria
Nerea Garziarena.

Erredakzioa
Nerea Eizaguirre, Inigo Gonzalez,
Maddi Zaldua eta
Maitane Aldanondo.

Publizitate
Irati Zatarain.

Laguntzaileak
Gorka Lasa, Asier Odriozola,
Gorka Alvarez, Jexux Artetxe,
Maitane Rebe, Julen Basterra,
Nerea Segura, Lierni Rekondo
eta Aizpea Amas.

Banatzzaileak:
Unai Bardaji, Oier Bocos, Lide
Hidalgo, Uxue Odriozola, Julene Iraola,
Egoitz Epelde, Sergio Hernandez,
Ander Hazas eta Inigo Garcia.

Informatika zerbitzua
IZT Informatika.

PUBLIZITATEA
Geltoki kalea 4 (behea)
Tel.: 943-37 14 48 (106)
WhatsApp: 646 82 44 66
publizitatea@ttakun.eus

EGOITZA NAGUSIA
Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
Tel.: 943-37 14 48 (104)
WhatsApp: 688 68 35 10
txintxarri@ttakun.eus

Inprimategia
Zeroa Multimedia, S.A.

Lege Gordailua: SS-513/93
ISSN: 1134-0053
Tirada: 8.500 ale

BABESLEA



LASARTE-ORIA
UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENEA:



Gipuzkoako Foru Aldundia

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKEN ARRATSALDEA BAINO LEHEN



LASARTE-ORIA Kontzertuak. Lasarte-Oriako Udalak eta Danok Kide elkarteak X. Musika Astea antolatuta dute, eta hiru emanaldi lotu: Sinfonia Navarra, Idoia Asurmendi eta Iñaki Salvador&Loiola Garmendia bikotea izango dira kultur etxeko auditorioko oholtzara igoko diren artistak. Kontzertuetarako sarrerek 14, 6 eta 6 euro balio dituzte, hurrenez hurren, eta sarean (www.ticketak.kutxabank.es) zein kultur etxeko leihatilan eros daitezke. Emanaldi horietako bakoitza 20:00etan hasiko da.

Martxoaren 4an, 5ean eta 6an, Manuel Lekuona Kultur Etxean, 20:00etan.

OSTIRALA 4

LASARTE-ORIA Martxoak 8

Lasarte-Oriako mugimendu feministak triki poteo informatiboa eta sinadura bilketa antolatu ditu, herrian berdintasun teknikaria falta dela ikusarazi eta herritarrak kontzientziatzeko asmoz. Okendo plaza, 19:00etan.

LASARTE-ORIA Musika

Turrillas sinfónico lana ekarriko du herrira Sinfonia Navarra orkestrak. Sarrerek 14 euro balio dute. X. Musika Asteako lehenengo emanaldia izango da. Manuel Lekuona, 20:00etan.

LASARTE-ORIA Erakusketa

Sara Etxeberria Zapirain *Basoko Maxuxta* artista lasarteoriatarak *Bideak* izeneko erakusketa jarri du Agora tabernan, hiru bat hilabetez. Agora taberna, Kale Nagusia 8, egun osoan zehar.

LARUNBATA 5

LASARTE-ORIA Martxoak 8

Lasarte-Oriako Udalak VI. zunba maratoia antolatu du, Emakumeen Nazioarteko Egunaren harira. Okendo plaza, 10:15ean.

LASARTE-ORIA Ospakizuna

Avenida taberna-jatetxeak jarduera ugari prestatu ditu, 40 urte bete dituela ospatzeko: *photocall*-a, bermuta, urdaiazpiko moztaila, DJa eta paella jana.

Avenida, 12:00etatik aurrera.

LASARTE-ORIA Martxoak 8

Lasarte-Oriako mugimendu feministak sinadurak bilduko ditu, herrian berdintasun teknikaria falta dela ikusarazi eta herritarrak kontzientziatzeko asmoz.

Okendo plaza, 12:00etan.

LASARTE-ORIA Musika

Ilun eta abar lana aurkeztuko du Idoia Asurmendi musikariak. Sarrerek 6 euro balio dute.

Manuel Lekuona, 20:00etan.

LASARTE-ORIA Kontzertua

Patxuko Nice taldeak kontzertua emango du. Sarrera, doan. Jalgi kafe antzokia, 22:30ean.

IGANDEA 6

LASARTE-ORIA Musika

Iñaki Salvador&Loiola Garmendia bikoteak itxiko du X. Musika Astea. Sarrerek 6 euro balio dute.

Manuel Lekuona, 20:00etan.

ASTEARTEA 8

LASARTE-ORIA Martxoak 8

Emakumeen Nazioarteko Egunaren harira, eragileek zenbait ekintza egingo dituzte.

12:00etan, Lasarte-Oriako Udalak deituta, elkarretaratzea, Okendo plazan.

18:00etan, udalak antolatuta, 2023ko Emakumeen Nazioarteko Eguna iragartzeko kartel lehiaketako sari banaketa, Emakumeen Zentroan.

19:00etan, Lasarte-Oriako mugimendu feministak deituta, elkarretaratzea, Okendotik.

Lasarte-Oria, egun osoan zehar.

ASTEAZKENA 9

LASARTE-ORIA Opera

Giuseppe Verdi konpositorearen *La Traviata* opera proiektatuko dute. Sarrerek 7,5 eta 9 euro artean balio dute.

Manuel Lekuona, 19:00etan.

OSTIRALA 11

LASARTE-ORIA Antzerkia

The Show Must Go On ikuskizuna eskainiko du Bea Larrañagak. Sarrerek 3 euro balio dute.

Manuel Lekuona, 19:30ean.

"Orain hasi gara martxa berreskuratzen"

SERGIO ORDOÑEZ 'PATXUKO' PATXUKO NICE TALDEKO ABESLARIA

Jalgi kafe antzokia urteko lehen kontzertua antolatu du: Patxuko Nice taldea igoko da oholtza gainera hilaren 5ean, 22:30ean, pandemia lehertu aurretik argitaratu zuen diskoa aurkezteko, *Quim-en marrazkia*. Horrez gain, 2012tik hona argitaratu dituzten gainerako lanetako zenbait pieza ere partekatuko dituzte ikus-entzuleekin, taldeko abeslari eta egitasmoaren sortzailatiko bat den Sergio Ordoñez *Patxuko*-k TXINTXARRI-ri kontatu dionez.

Gutxi falta da kontzerturako. Jalgira etortzeko gogotsu?

Bai, oso. Lasarte-Orian joko dugun aurreneko aldia izango da.

Lagun pila bat etorriko dira eta ilusionatuta gaude. Bi urte inguru

daramatzagu apenas jo gabe; hau izango da Gipuzkoako lehen kontzertua. 2020an lotuta genuen emanaldi bat Jalgin bertan, *Quim-en marrazkia* lan argitaratu berria aurkezteko, baina pandemiak ez zigun utzi.

Aipatu duzu pandemia hasi zenetik apenas jo duzuela. Orain hasi zarete martxa hartzen berriro?

Gure azken lana 2020ko martxoaren 10ean aurkeztu genuen, bira lotuta geneukan, baina 13an konfinatu egin gintuzten. Beraz, duela bi urte kaleratu genuen lana, baina orain ari gara eszenatoki gainean aurkezten; atera kontuak. Getxon jo genuen duela bi hilabete, Katalunian ere aritu gara berriki, eta orain, Lasarte-Oriara gatzoz. Orain hasi gara koronabirusa iritsi aurreko martxa berreskuratzen, pixkanaka-pixkanaka. Gure disko berrienero piezak joko ditugu, eta zaharragoak diren



JALGI KAFE ANTZOKIA

"LASARTE-ORIAN JOKO DUGUN LEHEN ALDIA IZANGO DA; LAGUN PILA BAT ETORRIKO DIRA"

"ERREFERENTZIA ASKO HARTZEN DITUGU 80. HAMARKADAKO MUSIKATIK, ASKO ENTZUTEN DUGU"

beste batzuk ere bai. Emozionatuta nago.

Bi urte eta gero, erdi ahaztuak izango zenituzten sentipenak ariko zarete bizitzen orain, ezta?

Egia esan, pandemia etorri zenean kolpea eman zigun, ahalegin izugarria egin genuen *Quim-en marrazkia* sortzeko, disketxe batekin, sekulako promozio lana... Baina ezin izan genuen behar bezala aurkeztu: jendea gugandik gertu egotea gustatzen zaigu guri, eta orain arte ez da posible izan. Esne Beltza utzi eta proiektu honetan murgildu nintzen 2012an, eta hasierako urteetan lasaiago aritu ginen, urrats bat gehiago egin eta beste dimentsio bateko proiektu bat prestatzea erabaki genuen arte, baina koronabirusa etorri zen gero. Egia esan, animoz ez naiz nire onenean egon tarte honetan, badirudi orain ari naizela buelta ematen. Jalgin kontzertua emateko irrikaz dago taldea.

Patxuko Nice jarraitzen duten zaleez gain, herritar bat baino gehiagok lehenengo aldiz ikusiko du taldea eszenatoki gainean. Zer nolako musika egiten duzue?

Normalean reggae, pop, ska eta antzekoak nahasten ditugu, estiloen mestizaje bat egiten dugu, nolabait esatearren. Erreferentzia asko 80. hamarkadatik hartzen ditugu, garai horretako musika asko entzuten baitugu, ez taldekideok bakarrik, gurekin teknikari aritzen den Pello Gorrotxategik ere bai, eta horrek eragina du sortzen ditugun abestietan.



INAUTERIETAKO ARGAZKI LEHIAKETA



EPAIMAHAIK AUKERATUTAKO BI ARGAZKI ONENAK



50 euro dendan erabiltzeko



SARIAK

IRAKURLEEN BOZKATUENA



IRAKURLE SARIA
bozka emateko
www.txintxarri.eus
martxoaren 9ra arte (barne)

ERRIGORA otar eder bat



HARTU
HITZORDUA!!!

Ate Irekiak Martxoak 9



943-36 46 00
adkomunikazioa@lhusurbil.eus



Erdi Maila: 17:00
Goi Maila: 18:00

www.lhusurbil.eus